




XIX. TOPAKETAK



HIZKUNTZ EREDUAK

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Ikastetxeen egoera:	
a) Partaideen datuak.....	3
b) Gaur eguneko ereduaren eragina antolaketa arloan.....	3
• Giza baliabideei dagokionez	
• Taldekatze eta espazioei dagokionez	
• Matrikulazioari dagokionez	
c) Gaur eguneko ereduaren eragina pedagogia arloan	5
• Euskara maila egokia lortzeko	
• Gaztelera maila egokia lortzeko	
• Ikasgaiak jarraitzeko	
d) Kontuan hartu behar diren beste faktoreak	8
• Etorkinak	
• 1.Hizkuntza	
• 3.hizkuntzaren sarrera	
• Gurasoen jarrera	
• Ekintza Osagarriak	
e) Ikastetxean dagoen Hizkuntz Ereduarekin dagoen asetze maila	10
3. Proposamenak	11
3.1.- Orokorrak	
3.2.- XIX.Topaketetan jarraitutako atalei dagokionez	
3.2.1.- Antolakuntza	
3.2.2- Pedagogi arloa	
3.2.3.- Kontuan hartzeko beste faktoreak	
4. Ondorio gisa.....	14
5. Eranskinak.....	15
5.1 - SAREANen XVII. Topaketetan onartutako dokumentua matrikulari buruz.	
5.2 - SAREANKidea den Iñaki Etxeberriak egindako lana: "Evolución de los modelos lingüísticos en la CAV"	
5.2 - ISEI-IVEIko Teknikaria den Arrate Egañaren hitzaldia: "Euskararen B2maila"	
5.3 - EHUKo irakasle katedraduna den Felix Etxeberriaren hitzaldia: "Hizkuntz ereduak"	

1. SARRERA

Sarean Elkarateak EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 162 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere, harremanak eta elkarlana bultzatzea dira.

SAREANek azaroaren 17, 18 eta 19an Eibarko portalea Kultur-etxean XIX. Topaketak burutu ditu eta txosten honek han bildutako 100 pertsona inguruk egindako lanaren islada ematea du helburu.

Topaketa hauetako gaia "Hizkuntz ereduak" izan da. Ohi dugun bezala, gaia aukeratzeko ikastetxeetara zerrenda irekia bidali zen proposamenak egin zitzaizten. Hartutako erantzunen artean argi zegoen gizartean ere pil-pilean dagoen gai honen interesa, beraz, ikastetxe publikoetan aritzen garenon ikuspuntua eta etorkizunerako proposamenak gauzatzea beharrezkoa iruditu zitzaigun.

Gaia jorratzeko modua hauxe izan zen:

- Adituen hitzaldiak, egindako ikerketen datuak kontuan hartzeko
- Talde txikitik egindako lana:
 - Gaur egun dauzkagun ereduaz azterketa: fitxa idatzia
 - Proposamenak
- Talde handian onartutako proposamenak

Jakin badakigu, egun hauetan egindako lana, trinkoa izan bada ere, hasiera baino ez dela. Ez dugu ahaztuta Administrazioak erduen finkapenarekin markatu zuen erronka, ikastetxe publikoetan urte luze hauetan egindako ahalegina eta gurasoek egin duten apustua.

Baina gizarteak beste pausuak ematea eskatzen du eta hori egin baino lehen gure ikastetxeen errealitatea sakonki ezagutzea behar-beharrezkoa da. Ezagupen horretarako aportazioa izan nahi du SAREANen lanak.

2. IKASTETXEEN EGOERA

2.1. Partaideen datuak

Jasotako fitxak:42

Ikastetxeak ereduaren arabera

A	B	D	A-B	A-D	B-D	A-B-D	Erantzun barik	Besteak
1	2	18	2	3	11	1	2	2

1H euskara duten ikasleen portzentaia

%0-10	%10-25	%25-50	%50-75	%75-100	Erantzun barik
21	5	4	3	5	4

Ikasle bekadunen portzentaia

%0-15	%15-30	%30-50	%50-100	Erantzun barik
4	7	12	13	6

2.2. Gaur eguneko ereduaren eragina antolaketa arloan

a) Giza baliabideei dagokienez

- D ereduaren duten ikastetxeek egokia ikusten dute ereduaren integrazioaren alde gehien lortzen duena eta giro euskalduna edukitzeko indarrak batu egiten dituela iruditzen zaielako baina eredu bakarria izateagatik desabantailak ere jasan behar dituzte:
 - Plantila txikiagoa.
 - Gelak gero eta beteago.
 - Proiektu garrantzitsu batzuetan parte hartzea ukatu egiten zaie, hau da eskolaz kanpoko ekintzen edo liburutegien proiektuen kasua.
 - Jantokiko arduradun euskaldunak derrigorrez klaustrokidea izan behar du.
 - Plantilaren parte handia urtero aldatzen da.
- B eta D ereduak dituzten ikastetxeen kasuan ezaugarri bereziak ere agertzen dira:
 - Plantilaren Hizkuntz Eskakizunaren arabera bi egoera azaltzen dira:
 - Irakasle guztiak HE2koak badira ez da bereizketarik egiten ikasleen artean, denak murgiltze ereduaren aritzen dira eta taldeak txikiagoak izateko posibilitatea daukate, baina irakasleen artean HE1ekoak badaude, plantila berbera izan arren, ezin dira umeak nahastu, taldeak desorekatuta gelditzen

dira eta ez dira euskalduntze prozesuan hainbeste onura ikusten irakasleen prestakuntza eta inplikazioak horretarako bidea ematen ez duelako.

- Matrikulak direla eta urtero aldaketak: taldeak elkartu...
- B ereduan dauden irakasle batzuen euskara maila oso baxua da.

- A eredua dagoen ikastetxeetan ondoko egoerak azaltzen dira:
 - Eredu hau desagertzean dagoen eskoletan positiboki baloratzen da desagerketa, "ghetto" bihurtzeko duen arriskuarengatik; ikasle "berezien" taldeak bihurtzen dira eta ikasle horiekin lan egin behar dutenen estresa, nekea eta motibazio falta nabariak dira.
 - Plantila handiagoa da baina baliabide hori ezin da era eraginkorrean aprobetxatu, irakasleek euskara ez dakitelako.
 - Era positiboan baloratzen da ikastetxe hauetan, gehienetan eskarmento handiko irakasleak daudela.
 - A eredua H. Eskakizunik gabeko irakasleen gotor lekua bihurtzen da.
 - Ikastetxeko giroa ez da euskalduna irakasleek erderaz hitz egiteko ohitura hartzen dutelako. Hala ere gehienetan ondo baloratzen da lerro euskalduna jartzea ikastetxean (D edo B) giroari nolabaiteko euskalduntasuna gehitzeko.
 - A ereduan euskara bost saiotan bakarrik egiten da.

b) Taldekatzea eta espazioei dagokienez

Ikasleek euskaraz daukaten gaitasuna eta erabilpena indartzeko talde txikiak eta malguak egitea da ikastetxeetan erabiltzen den errekurtsorik baloratuena baina kasu askotan, erantzuleen %33aren kasuan hain zuzen ere, lekuaren falta izaten da oztoporik larriena.

Bestalde, 1H euskara duten ikasleak eta 1H gaztelera dutenak elkartzea ondo baloratzen da, nahiz eta elkarketa honek gaztelera erabiltzeko joera areagotzen duen.

Ikastetxean bi eredu egon ezkerro talde txikiagoak egon daitezke baina irakasleen hizkuntz eskakizunak hori ahalbidetzen ez badu, oso talde deskonpentsatuak sor daitezke ikasle kopuruaren aldetik.

D ereduko taldeak orokorrean oso handiak dira eta honek harremanetarako hizkuntza aukeratzerakoan gaztelera joera nabaria eragiten du; era berean, irakasleek zailtasun gehiago dute ikasle guztiekin harreman indibidualak izateko.

c) Matrikulazioari dagokionez

Matrikula alorrean ikastetxe publikoetan bi konstatazio garrantzitsu egin dira:

1. Matrikularen gorakada
2. Eredu bakarra edukitzeak arlo honetan dauden arazo asko konpontzen duela, antolaketa errezten duela eta ikastetxearen metodologia unifikatzeko bidea ematen duela.

Bestalde, matrikula prozesua era batera edo bestera moldatzen duten bi eragile nagusien garrantzia azaldu da: gurasoak eta Administrazioa.

a) Gurasoak

- Ez daukate oso argi ereduak zer diren. Informazio akats honetan zerikusirik handia dauka lekuz leku eredu bakoitzak izan duen garapena. Esan dezakegu gaur egun ezinezkoa dela ikastetxe publiko guztientzat balio duen hizkuntz ereduaren definizioa eman.
- Daturik argiena hau da: gurasoek seme-alaben matrikula egiteko orduan eredu "euskaldunaren" aldeko apustu garbia egiten dutela.
- Batzutan ikastetxea aukeratzen dute, arduratu barik bertan dauden ereduak, eta azken urteetan igo bada gurasoen interesa batez ere D ereduaren, oraindik gurasoen kopuru handiak ez dauka horren inguruko ideia finkorik.
- Guraso batzuen kezka, haiek euskara jakin gabe, seme-alabeei ikasketetan zelan lagundu izaten da.
- Etorkinak erreztasunak bilatze aldera, gaztelera gehien egiten den ereduak aukeratzen dute (A edo B); beste ikasle arazodun edo etnia desberdinetakoekin berdin gertatzen denez, oso talde "bereziak" sortzen dira eta honek eredu horiek ghetto arriskutsuen sorrera ahalbidetzen du.

b) Administrazioa

Matrikulazio prozesuan oso garrantzitsua da guraso eta ikastetxearentzat Administrazioaren jarrera ondoko egoerek adierazten duten bezala.

- Eredu batetan ikasle gutxi baldin badago Administrazioak suprimitu edo elkartzen du taldea.
- Eredu batetan matrikula zenbakiak desdoblea suposatzen badu, ikasle batzuei ukatu egiten zaie ereduak aukeratzeko eskubidea beste ereduaren matrikulatzera derrigortuz.
- Administrazioak berak, A ereduak kasu askotan ghetto bihurtzeko erreztasunak ematen ditu ikasleak leku desberdinetatik eredu horietara garraiatuz.
- Ikastetxe bakoitzak eduki ditzakeen unitate zenbakia markatzen du eta matrikula gehiago egon ezkeren baremazioa eskatu ondoren eszedenteak kanpoan uztera derrigortzen du ikastetxea, guraso horiek eskola publikoak aukeratzeko duten posibilitatea murriztuz.
- Batzutan ikastetxeak eta gurasoak borroka egin eta gero Administrazioak beste gela bat zabaltzeko baimena ematen dio ikastetxeari baina urtero aldarrikatu behar da.
- Administrazioak ikastetxe publikoei ezartzen dion zonifikazioa arazo iturria izaten da.

Azkenez, matrikulazio prozesua neketsua bihurtzen dadin "kolaboratzen" duten beste bi faktore ere azaldu dira:

- Hainbat ikastetxetan dagoen espazio falta.

- Ikasturtea hasi ondoren matrikulatzen diren ikasleen beharrei erantzuna emateko zailtasunak batez ere giza errekursoen faltagatik.

2.3. Gaur eguneko ereduaren eragina pedagogia arloan

a) Euskara maila egokia lortzeko

XIX. Topaketen partaideen iritzia bat dator B2 frogaren emaitzarekin, hau da, gaur egun euskara maila egokia D ereduaren bakarrik lortzen dela.

Dena den, ikastetxeetan hizkuntzaren arloan kezka ugari dago; hona hemen nagusienak:

- Euskara era egokian menperatu arren, erabilera eskasa. Batzutan hau zuzentzeko oztopoa bi eredu izatea da, batez ere Hizkuntz Eskakizun minimorik edo oso baxua duten irakasle taldea dagoenean, ikastetxe hauetan giro euskalduna lortzea oso zaila baita.
- Gurasoen inplikazioa falta leku askotan.
- Irakasle batzuen inplikazio falta.
- Gutxienezko helburuen zehaztapen falta, hala nola, ebaluatzeko irizpide eza.
- Ikastetxe batzutan (bi eredukoetan) euskara mintegiko irakasleen egonkortasun falta.
- Ez da ondo ulertzen euskararen salbuespenaren (exentzioa) zergatia.
- Sentsibilizazio kanpainen beharra.
- Saio intentsiboak egiteko talde txikiagoak egiteko giza baliabide gehiagoren beharra.

Kezka guzti hauek ikastetxeen ezaugarrien arabera era gogorrean edo apalean arduratzen batzaizkie ere, badago egoera bat denon buruhaustea dena, inguruaren garrantzia, gizarteak euskaraz erlazionatzeko eskaintzen dituen aukerak edo kasu askotan aukera falta.

b) Gaztelera maila egokia lortzeko

Puntu honetan ere ikastetxeetan frogatu dena eta egindako probetan azaldutako emaitzak bat datoz, gaztelaniaz lortzen den maila ona da ereduaren edozein dela.

Hala ere, ikastetxeetan arlo hau ez da bazterturik geratzen eta ondorioz herri euskaldun peto-petoetan, inguru guztiz euskaldunetan, gaztelera formala batez ere indartzen da.

Momentu honetan ikasleen beharrei erantzun egokia emateko ikastetxeetan ondoko bi hutsune nabarmendu dira:

1. Autonomia pedagogikoaren falta ikastetxe bakoitzak bere ikasle eta inguruaren errealitatea aztertu eta definitu ondoren, gaiei dedikatuko dien denbora erabakitzeko.

2. *Gazteleraren maila neurtuko duen froga fidagarria; batzuetan gaztelerazko maila eskasaren errua eredu euskaldunei egozten zaielako eta A ereduak duten ikastetxeetan perzeptzioa bestelakoa da, hau da, arazoak dituzten ikasleak edozein eredutan agertzen direla.*

c) Ikasgaiak jarraitzeko

Ikasgaiak behar bezala jarraitzeko, partaide gehienek zera aipatzen dute, transmisioko hizkuntza ahalik eta hobeto menperatu behar dela; euskararen kasuan oinarri sendo hori lortzeko baldintzak nabarmendu dira:

- Haur Hezkuntzatik lan handia egitea murgiltze sistema erabiliz.
- Euskara erreforzatzeko baliabideak edukitzea.
- Ikastetxean erabiltzen den metodologia unifikatua izatea.
- Ziklo bakoitzean lortu behar den maila eta ebaluaketa sistemak finkatzea.

Gaur eguneko ereduak gaien jarraipenari dagokienez ezaugarri hauekin deskribatu dira:

- D ereduko ikasleak orokorrean gaiak arazo barik jarraitzen dituzte baina taldeak gero eta handiagoak direnez, bertan giza baliabide gehiago sartzeko beharra azpimarratu da.
- B ereduaren kasuan oso urrats positibo bezala ikusten da irakurketa-idazketa prozesua euskaraz egitea, aurrerantzean, batez ere ingurune arloan, ondo jarraitzeko.
Dena den eredu honetan zailtasun gehiago dago ikasleek lortzen duten euskara maila baxuagoa delako.
- A ereduan ez da arazo hau planteatzen dena gazteleraz eta inguru guztiz erdaldunean mugitzen direlako.

2.4. Kontuan hartu behar diren beste faktoreak

a) Etorkinak

Ikastetxeetara datozen etorkinen ezaugarri nabarmenena aniztasuna da eta horrek ondorio zuzena du gure Hezkuntza Sistemara sartzeko eraman behar duten prozesuan; honek, arrakastatsua izango bada, kasuz-kasuko arreta exijitzen du.

- Ikasleak txikiak badira heltzen direnean ez dute arazo berezirik D ereduan integratzeko baina nagusiagoak badira bai.
- Hego amerikarrak badira, gaztelera menperatzen dute eta ez dute euskara ikasteko premiarik. Eredu desberdinak egon ezker A edo Bn pilatzen dira beren integrazioa zailagoa eginez eta B ereduaren kasuan talde osoa gazteleraz hitz egitera bultzatzen.
- Gurasoen inplikazioa seme-alaben ikasketara prozesuan oso baxua izaten da eta kasu askotan beraiekin harremana edukitzea ere oso zaila da.
- Balore mota desberdinak dituzte.

Ikastetxeetan egoera anitz horiei erantzuna emateko ahaleginak egiten badira ere, hutsune nabariak ikusten dira:

- Hausnarketa sakona eskatzen duen gaia da.
- Giza baliabide gehiagoren beharra argi azaltzen da, ez zenbakien arabera bakarrik baizik eta kasuz-kasuko ezaugarrien arabera.
- Irakasleen formakuntzaren beharra ere azaltzen da etorkinen etorrerak suposatzen duen kultur aniztasuna gurearekin txertatzeko gaitasuna garatu ahal izateko eta ikasle bakoitzaren beharreei ahalik eta egokien erantzuteko tresnetaz jabetzeko.
- Material egokien beharra somatzen da.

Behar guzti hauek asetzearekin batera badago ikastetxe publikoen ordezkari guztiek egiten duten eskaera, hots, atzerriko ikasleen banaketa orekatua diru publikoz hornitutako ikastetxe guztien artean.

b) Hizkuntza

Ikasleak taldetan banatzeko dakarten 1.H kontuan hartzen duten ikastetxeak gutxi dira eta gehienetan datu hori umeak nahasteko erabiltzen da. Bestalde gaur egun ez dago hain argi zein den eskolara bi urterekin heltzen den umearen 1. Hizkuntza, amarena, aitarena, zaintzailearena...

Eredu egokia diseinatzerakoan kontuan hartu beharko liratekeen iradokizunak:

- D edo antzeko ereduak ikusten da egokiena, eredu desberdinak eskaintzeak antolakuntza didaktiko eta pedagogikoa oztokatzen baititu.
- Eredu hau, malgua eta behar dituen baliabideekin hornitua izatea proposatzen da.
- Lehen urteetan oso garrantzitsua da euskara indartzeko inertsioa.
- Irakasleen formakuntza serioa behar da, hizkuntza komunikatiboa lantzeko, ikastetxeko hizkuntzen trataera bateratua diseinatu eta egia bihurtzeko.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz egiteko aukera ematea beharrezkoa ikusten da.

d) Hirugarren hizkuntzaren sarrera

Erkidegoko ikastetxe publikoetan Ingeleraren sarrera goiztiarra 4 urteko umeekin hasteko ezarrita dago. Hezkuntza Sailak bultzaturiko programak ("*Ingeleraren sarrera goiztiarra*" eta "*Content based teaching*") hedatuta daude.

XIX. Topaketa hauetan gai honen inguruko eztabaidan 3. hizkuntzaren sarrera egiteko markatuta daukagun adinaren egokitasuna (4 urte) zalantzan jarri da. Ondoko iritziak jaso dira:

- Gai honek eztabaida luzea beharko luke, lekuan lekuko egoera linguistikoa aztertu eta gero ikastetxe bakoitzaren hizkuntza proiektuaren arabera antolakuntza egiteko.
- Ikastetxeetan gaur egun praktikan jartzen ari garen programen ebaluazio sakona beharrezkoa da.

- Topaketetako fitxa bete duten %60ak uste du Haur Hezkuntzan ingelerarekin hasteak euskararen murgiltze prozesua kaltetzen duela. Badira ere ikastetxe batzuk, beren kabuz 1. mailan hastea erabaki dutenak, Haur Hezkuntzako ahaleginak euskara ahalik eta hobetoen menperatzera dedikatuz.
- Ingeleraren sarrera goiztiarra erabiltzen da Haur Hezkuntzako irakasleen irakas-ordutegia egokitzeko, Administrazioak ikastetxe publikoetan programa hauek ezartzeko ez duelako plantila zabaldu.
- Sozialki eskatzen da, beharrezkoa da baina ondo planifikatuta eta baliabide gehiagorekin.
- Aztertu behar da beste herrialdeetan atzerriko hizkuntzarekin beranduago hasita ere, zergatik dituzten emaitza hobek, zein ratiorekin funtzionatzen duten eta programa horiek sustatzeko erabiltzen dituzten baliabideak.
- Hizkuntza proiektua eta bere barruan "hizkuntzen trataera bateratua" ondo definituta edukitzeko argibideak eta aholkularitza behar-beharrezkoak ikusten dira, ikastetxe bakoitzak bere proiektua egin eta garatu dezan.

e) Gurasoen jarrera

Ikasleen hezkuntza prozesua gauzatzeko gurasoen inplikazioa beti oso faktore garrantzitsua bada, alde linguistikoa areagotzen da garrantzi hori eta euskararekiko adierazten duten konpromisoak izugarritzko zerikusia du gero ikasleek lortuko dituzten emaitzekin.

XIX. Topaketetako partaideen iritzietan gaur eguneko egoerak ondoko ezaugarriak ditu:

- Gehienetan B eta D ereduetan umeak matrikulatzen dituzten gurasoen jarrera positiboa da.
- Inplikazio maila orokorrean jaitsi da baina ereduaren arabera desberdintasunak ikusten dira eta arlo honetan ere D ereduaren ematen da lorpenik onena, inplikazio maila altuenarekin; B ereduaren konpromisoa apalagoa da eta A ereduaren euskara bultzatzeko jarrera AMPAren bidez adierazten den arren, guraso gehienek partetik ez da interesik azaltzen.
- Gurasoek planteatzen duten arduraren hauxe da, seme-alabeei etxean laguntzeko eduki ditzaketan zailtasunak, euskaraz daukaten alfabetizazio maila baxua delako edo ez dakitelako.

Gurasoen jarrera eta inplikazioa indartze aldera, ikastetxeetan ahaleginak egiten badira ere hutsuneak daude ondoko alorretan:

- Gurasoak ahalik eta informazio zabalena ematea, egiten duten esfortzua errekonozituz eta zalantzak argitzeko aukerak eskeiniz.
- Testuinguru ez formalak lantzeko kanpoko errefortzuak bideratu.
- Guraso euskalduneei etxeko transmisioaren garrantzia jakinarazi.

f) Ekintza osagarriak

Herri euskaldunetan umeez eskolaz kanpoko harremanak ere euskaraz izaten dituzte eta berdin herri mailan antolatzen diren ekintzak ere. Arazoa kaleko giro erdalduna duten herrietan planteatzen da eta agerian geratzen da eskolak soil-soilik ezin duela euskalduntze prozesua garatu.

Puntu honetan Administrazio desberdinen zeregina ezinbestekoa da:

- Udalalaren parte hartzeari garrantzi handia ematen zaio, aisialdirako ekintzak antolatzeko, hori baita umeez sozializazio prozesuan eskolaren ondoren daukaten ingururik hurbilena.
Gurasoak euskalduntzeko ikastaro bereziak antolatzea ere eskatzen zaie Udalei.
- Hezkuntza Sailaren ardura ere handiagoa izan beharko luke ekintza osagarrien arloan, jantoki, liburutegi eta eskolaz kanpoko arduradun eta begirale euskaldunak jarritz.
- Diputazioak ere lan honetan duen konpromisoa areagotu beharko luke egonaldiak, irteerak eta beste ekitaldiak antolatuz.

2.5. Ikastetxean dagoen Hizkuntza Ereduarekin dagoen asetze maila

Momentu honetan ikastetxeetan dagoen eredu/ereduekin partaideen aldetik nabaritzen den asetze maila nolabait neurtzeko 1etik 5era doan eskalan zenbakia aukeratzea eskatu zitzaien XIX. Topaketetan parte hartu zutenei.

Hona hemen emandako datu orokorrak:

Jasotako inkestak	Puntuazioa azaltzen duten ikestak				
42	24				
	1	2	3	4	5
	1	4	6	8	5

Datuek, asko ez izan arren, eskaintzen diren ereduaren arabera aztertuta ondorio hauek islatzen dituzte:

- Asetze maila handiena adierazten duten ikastetxeek B edo/eta D ereduak dituzte.
- Puntuaziorik altuena eman duten ikastetxeak D eredu bakarririk daukate.
- A eredu daukatenean artean hiru jarrera agertzen dira: ez dute puntuaziorik jartzen, bazuena jartzen dute edo altua bada eredu hori desargertzeko bidean dago.

3. PROPOSAMENAK

Topaketen bukaeran egiten diren proposamenak talde txikietan egindako lanaren ondorio zuzena dira, bertan eztabaidatu eta adosten baitira.

Erkidegoko ikastetxe publikoetan hizkuntz ereduaren arloan gaur egun dagoen egoera, aurreko atalean ikusten den bezala, anitza da eta lekuan lekuko ezaugarriak baldintzatuta, noski, baina toki guztietan igerri da aldaketa nabarmena; ikusten den garapena joera komun baten indarrez bideratzen ari da, eredu euskaldunerantz lehenengo eta eredu bakarrerantz gero. Hortaz, D eredu asko indartu da, B transizio eredu da leku gehienetan eta A gutxiengoan dagoen eredu bihurtu da eta Hizkuntz Eskakizunik gabeko irakasleen kopurua murrizten den heinean desagertuz doa.

Hogei urte luze hauek utzi duten eskarmentua eta gaurko gizarteak planteatzen dituen erronkak bistan edukiz XIX. Topaketa hauetako proposamen nagusia hauxe da:

Ikastetxeetan gaur egun dagoen D ereduarekin antzekotasuna izango duen eredu bakarria ezartzea. Proposamen honek lotuta daroma ezinbesteko baldintza bat, hau da, irizpide desberdinetan oinarritutako legea garatzea.

Hurrengo proposamenak aurrekoa garatzeko bide bezala aurkezten dira eta bi bloketan banandurik aurkezten dira: orokorrak eta Topaketetan jorratutako atalei dagozkienak.

3.1. Proposamen orokorrak

Proposamen hauek etorkizuneko ereduaren azpiegitura osatuko lukete, beraz, eraikiko den sistemaren tinkotasuna eta arrakasta faktore hauetaz baldintzatuta geratuko da.

- Hizkuntz ereduaren inguruan edozein aldaketa egin baino lehen ezinbestekoa da ikerketa sakon eta serioa egitea, gaur eguneko ereduak izan duten bilakaera aztertuz eta baloratuz.
- Egingo diren aldaketa edo/eta berrikuntzek, legean azaltzen dena garatzeko aurrerapausoa suposatu behar dute.

AZAROAREN 24KO 10/1982 OINARRIZKO LEGEA, EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEZKOA. 17garren Atala.

Jaurlearitzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantza emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapidetan eta Arduralaritzako ihardun eta agirieta euskara agizko adierazpide eginez.

Euskal Eskola Publikoaren Legea

*III. IDAZPURUA - EUSKARA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN
18. atala.*

Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.

- Zonaldeen ezaugarriak (euskaldun / erdaldun) kontuan hartu beharko dira lekuan lekuko planifikazioa egiteko.
- Bai ikasle etorkinak bai behar bereziak dituztenak diru publikoz sostengatutako ikastetxe guztien artean (publikoak eta itunpekoak) banatu beharko dira.
- Diseinatzen den ereduak Erkidegoko ikastetxe guztietan ezarri beharko da.
- Plan berriak beharren arabera aurrekontua izan beharko du.

3.2. XIX. Topaketetan jorratutako atalei dagokienez

Ondoko proposamenak hiru arlo nagusitan aztertutako egoeren ondorio dira eta proposamen orokorren menpean aurkitzen dira, hau da, azpiegitura egokia izan ezean alperrikoak izango direla.

3.2.1- Antolakuntza

- Matrikulazio prozesua berritu; SAREANen XVII. Topaketetan onartutako txostenean agertzen da proposamena. (Eranskin 1)
- Gurasoei ahalik eta informazio zabalena eta jarraipenarekin emateko Administrazio eta ikastetxearen konpromisoa.
- Ikastetxeetan talde txikiagoak egiteko erreztasunak eman:
 - Leku gehiago prestatu.
 - Giza baliabideak jarri.

3.2.2- Pedagogi arloa

- Erreferenteak behar dira, hots, ziklo bakoitzeko helburu eta edukiak argi markatu, neurtzeko frogak ezagutarazi eta ebaluaziorako irizpideak zehaztu.
- Aniztasunean lan egiteko estrategiak sortu eta ezagutarazi.
- **Ikastetxeen Autonomia Pedagogikoa** zabaldu, ikasle eta iguruaren errealitateari egokitutako Proiektua garatzeko gai bakoitzari dedikatzen zaion denbora erabakitzeke ahalmena edukiz.
- Ikastetxeetan Hizkuntzen trataera bateratua zehazten duen proiektua garatzeko argibideak eta aholkularitza ezinbestekoak dira.
- Etorkinen eskolatze prozesuaren inguruan hausnarketa sakona egiteko beharra ikusten da. Horren ondorioz kasuen kasuko baliabideak jarri arlo desberdinetan:
 - Pertsonalgoan
 - Irakasleen formakuntzan
 - Material egokiak sortzeko
 Honekin batera gurasoekiko harremana lortzeko edo /eta indartzeko Udala -Eskola arteko planak egokitzea ere proposatzen da.
- Ikastetxeetan metodologia unifikatua izatea beharrezkoa ikusten da, hortaz, akordioak lortzeko lan egitea komenigarria ikusten da.
- Euskararen erabilpena indartzeko planak bultzatu behar dira:
 - Ahozko hizkuntza lantzeko errefortzuak egiteko giza baliabideak jarri.

➤Ekintza osagarrietan euskara indartuz: jantokian, liburutegian...

- Ikasleek hizkuntza barneratu eta euskaraz erreztasunez komunikatzeko ezinbestekoak diren murgiltze programak zaindu. Lehen urteetan garrantzi handia dute eta neurri handi batetan horiekin lortzen den arrakastak erabilpena baldintzatuko du. Horretarako ikasle kopuru egokiko talde malguak egitea posibilitatzen duen plantila behar da.
- Ingeleraren sarrera goiztiarrari buruz kezka ugari adierazten da eta Topaketan partaideen % 60ak uste du Haur Hezkuntzan hasteak onurak baino kalte gehiago egiten diola euskalduntze prozesuari, hirugarren hizkuntzarekin Lehen Hezkuntzako 1. mailan hastea egokiagoa ikusiz. Honekin batera Hezkuntza Sailak bultzatzen dituen proiektuen ebaluazioa eskatzen da.

3.2.3 - Kontuan hartzeko beste faktoreak

Ikasleen hezkuntzan eta bereziki euskalduntze prozesuan eskolarekin erlazionatuta baina bere esparrutik kanpo gelditzen diren garrantzi handiko bi faktore agertzen dira: familia eta ingurua. Euskararen erabilpena zabaltzea lortuko badugu ez bata ez bestea ezin dugu ahaztu. Beraz, arlo honetan ondoko proposamenak egin dira:

- Gurasoekiko harremana bultzatu:
 - Era desberdinetara eskura daitekeen informazio zabala eman.
 - Familiak ikastetxeetara hurbil daitezen proiektuak bultzatuz.
 - Etxeko jarreraren garrantzia familiei jakinaraziz.
- Hezkuntza Saila, Ikastetxea, Udala eta Foru Aldundiaren elkarlana beharrezkoa ikusten da euskararen erabilpena indartzeko ahaleginetan, denok Euskararen Normalkuntza Planetan murgilduta baikaude.

ONDORIO GISA

SAREAN Elkarteak antolatutako XIX. Topaketetan "Hizkuntz ereduak" izenburupean eta ikastetxeetako errealitatea oinarri bezala hartuz egindako hausnarketaren ondoren, egindako proposamenak kontuan hartu eta gero, laburpen gisa, iritzirik nabarmenenak azaltzen ditugu.

Hogei urte baino gehiago pasatu ondoren eredu linguistikoak zaharkituak gelditu dira, lekuan lekuko izan duten garapenak lege esparrutik aldendu ditu eta gaur egun Hezkuntzan dauden beharrei erantzuteko gaitasunik ez daukate. Horregatik behar-beharrezkoa ikusten da ikerketa serioaren ondoko berrantolaketa bat.

Ikastetxeetako errealitatea ikusita eta egin diren ebaluazio informeei (B2 - PISA) adierazten duten datuetan oinarrituta egokia dirudi eredu bakarra ezartzea. Eredu bakar hori ez litzateke izango gaur egun ezagutzen ditugun arteko bat, noski, baizik eta ikastetxeetako aniztasunaren beharrei erantzuteko gai den eredu euskalduna.

Eskatzen den birmoldaketa linguistiko honek ikastetxeetako antolakuntzan eta irakasleen lanetan ahalegina eskatzen aparta, Administrazioaren inplikazioa suposatzen du, ezinbestekoak diren baliabideak jarritz.

Euskararen ezagupenean pauso garrantzitsuak eman badira ere aurrean daukagun erronka "erabilpena" da eta lan horretan eskolak ezer gutxi egin dezake, familia eta inguruak kolaboratzen ez badute; Horregatik euskararen erabilpena areagotzeko planetan eskola eta H. Sailarekin batera Udala eta Aldundiaren parte hartzea eskatzen da.

Amaitzeko ezin ahaztu Eskola Publikoak euskalduntze prozesua hasi zenetik egin duen ahalegina, lortu dituen emaitzak eta gurasoen ezker ona matrikularen gorakadarekin; Ildo horretatik jarraitzeko SAREANen Topaketak osatzen duten forotik Hezkuntza Sailaren arduradunei erronka horri heltzeko ausardia edukitzea eskatzen diegu eta eredu linguistikoaren berriztatze prozesua irizpide pedagogikoetan oinarritzea. Norabide horretan gure laguntzaren falta ez dutela izango ziurtatzen diegu.

ERANSKINAK

Eranskin 1 - Matrikulari buruzko txostena. (XVII. Topaketetan onartuta)

IKASLEEN ONARPENA IKASTETXEETAN.- AURREMATRIKULAZIOA:

Aski ezaguna da gure artean aurre-matrikula garaiak ekartzen dizkigun kezkak eta buruhaustek: gurasoen bisitak, baremazioak, soberakinak, etorkizunerako zalantzak, e.a. Kasu askotan, esperientzia frustantea suertatzen da eta gatazkak nonahi agertzen dira.

Aurre-matrikula, bai ikastetxe publikoetan eta bai itunpekoetan, Zentro berberatik kudeatzen dira eta arazo ugari sortzen dira honen inguruan.

Mapa zaharkitu batean oinarriturik, kasu gehienetan, bi sareen arteko urteroko "konpetentzia" azaleratzen da eta zenbait kontzeptu ilun geratzen dira.

Bistan dago, azken urte hauetan egiten ari diren "marketina" kanpainak ia ikastetxe gehienetan eta hauek, konpetentzian oinarritzen direla esan daiteke. Ondo dago, ikastetxe bakoitzeko Hezkuntza Proiektuaz informatzea, baina benetako arrazoia bestea da, konpetentziarena hain zuzen.

Mapa dela eta, denak ez gara hasiera puntu berberatik abiatzen eta sare publikotik ezin dugu itunpekoen "eskaintza integralarekin" lehiatu. Errealitatean, gure Euskal Autonomi Erkidegoan, subsidiario geratu den sarea, sare publikoa izaten da gehienetan.

Bada garaia, gai honi heltzeko eta aurre-matrikula prozedurak ezartzen dituen mekanismoei begirada bat emateko.

Administrazioak bermatu beharko du prozedura gardena gai honen inguruan eta ziurtatu beharko du eskaintza publikoa elikatzen.

Idatzi honetatik proposamen zehatzak egingo dira aurre-matrikula prozedurak hobetzeko eta noski, gure ustez hartu behar dituen neurriak. Egoera aldatu da eta aldagai berriak sortu dira, 0-3 eta etorkinak adibidez.

Honako puntu hauek aztertuko ditu.

1. BAREMAZIOA. Arau berrien beharrak gaurko egoerari egokituak.
2. AURRE-MATRIKULA EGITEKO PROZEDURAK.
3. ADMINISTRAZIOAREN INPLIKAZIOA SARE PUBLIKOAREKIN.

MATRIKULA:INDARREAN DAGOEN ARAUTEGIA:

Lurralde bakoitzean Eskolatze Batzordea osatzen da hezkuntza sare guztiekin eta Administrazioaren ordezkariekin. Gure ustez, gehienetan protokoloa besterik ez da lantzen Batzorde horretan eta ez da geroko kontrola ematen (zer gertatzen da soberakinekin, matrikula kuotak edo kooperatibista kuotak, etorkinak,.....)

Arautegia:

- Otsailaren 4ko 14/1997 dekretua.
- Urtarrilaren 23ko 9/2001 Dekretua, eskaerak eskaintza baina handiago direnean erabili behar den baremoa ezartzen duena. 14/97 dekretua aldatuz.
- Prozedura eta egutegia ezartzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Agindua 2004ko urtarrilaren 23koa.

Zehaztapen batzuk:

Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, Heziketa jasotzeko Eskubidea arautzen duenak, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko zein printzipio orokor erabili finkatu zuen, eta hain zuzen ere 20. atalean, irizpide nagusiak zehaztu zituen:

- Bizilekuaren hurbiltasuna.
- Familiak urtean duen errenta
- Ikastetxean beste anai-arrebaren bat matrikulatuta egotea.

Otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuan Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesuak arautzen ditu. Dekretu honek hauxe dio:

- *(3. atala) Ikasleak onartzerakoan ezin izango da, inoiz ere, bereizkeria eragingo duen irizpiderik erabili, ideologia, erlijioa, moralak, gizarteak, arraza edo jaiotza dela eta. Aurreko atalean aipatutako ikastetxeetan, ezin izango da ikastetxean sartzeko irizpidetzat sarrera-proba edo sarrera-azterketaren batean lortutako emaitza erabili.*
- *(6. atala.-) 1.- Dekretu honetan ikasleak onartzeko arautzen den prozesua diru publikoaz diharduten ikastetxeetan lehenengo aldiz sartzen diren ikasleekin erabiliko da, beti ere ikasketa hauek burutzeko: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, lanbide heziketako erdiko mailako heziketa zikloak eta batxilergoa.*
- *2.- Hezkuntza-maila beraren barruan ikasturtez edo zikloz aldatzeak ez du eragingo onartzeko prozesuan sartzeari, aldaketa horrek ikastetxez aldatzea ez badakar behintzat.*
- *3.- Dena delako ikaslea diru publikoaz diharduen ikastetxe batean sartzen denetik aurrera, ikastetxe horretan eskaintzen diren derrigorrezko*

irakaskuntzako ikasturte guztiak amaitu arte, bertan jarraitu dhal izatea bermatuta izango du ikasle horrek.

- *11. atala.- Ordezkaritza-organo gorena izango da ikastetxe publikoetan ikasleak onartu edo ez erabakiko duena. Itunpeko ikastetxeetan, titularrak izango dira erabaki hori hartu eta ikasleak onartzeari buruzko araudi orokorra zorrotz betetzearen erantzuleak. Eskola Kontseiluak, berriz, araudia betetzen dela bermatu beharko du.*

A) BAREMAZIOA PROZESUA

1.- BIZILEKUA IKASTETXETIK GERTU EGOTEA:

- Eremuko eskolatze-batzordea: *Eremu jakin batzuetan gertatzen ari diren arazoei(zonifikazioa, plazan esleipena, ereduaren arazoa,,e.a.) aurre egiteko batzorde honi behar bezalako garrantzia eman behar zaio. Lehenik eta behin, ez dadila izan orain arte izan dena: itxurazko batzordea, non bertaratzen ziren partaideek ez zuten teoriak errepresentatzen duten sektorearen proposamenik eramaten.*

PROPOSAMENA: Batzordeko zuzendarien ordezkioak bilerara joan aurretik gainerako zuzendarien kezka, proposamenak, e.a. jasoko ditu eta batzordera eramango ditu.

2.- FAMILIEN URTEKO ERRENTA:

- Familiaren urteko errenta: *Euskal Eskola Publikoaren legeak Derrigorrezko Hezkuntza bezala izendatzen duen heinean bermatzen ditu, beharren arabera, horrek dakarren zerbitzu guztiak(jantokia, garraio, liburuak,...)Beraz Administrazioak ziurtatzen dio ikasleari plaza Derrigorrezko hezkuntza etapetan eta honek ez du suposatzen familiari bestelako karga ekonomikorik. Baremazioa egiten den ikastetxeetan ikusten da homogenizazio joera ematen dela, batipat, ikaslearen egoera sozio-ekonomikoari dagokionez. Maila ekonomiko altua edukitzen duten horiek soberakin bezala geratzen dira eta gehienak, eskola pribatuan kokatzen dira gero.*

PROPOSAMENA: Familiaren urteko errenta baremotik kentzea.

3.- IKASTETXEAN MATRIKULATUTAKO BESTE ANAI-ARREBAREN BAT IZATEA:

- *Puntuazioa eman, ikastetxeak duen ibilbidearen zentro batean (DBH) anai arreba baldin baditu.*

4.- BESTE IRIZPIDE BATZUK:

- Plazen esleipena: *Gerta daiteke ikastetxeren batean irakaskuntzaren baterako eskaria ikastetxeren eskaintza baino handiagoa izatea. Hala gertatuz gero, ikasleak bigarren eta hirugarren lekuan aukeratu dituen ikastetxeetara bidali beharko dute ikastetxe horiek eskaeraren kopia eta ikasleak aurkeztutako dokumentazio osoaren kopia. Beste ikastetxe batzuetatik eskaera horiek jasotzen dituzten ikastetxeek ikastetxean bertan jasotako eskaerak bezalaxe hartuko dituzte eskaera horiek, baldintza beretan barematuko dituzte eta onartutakoen behin-behineko zerrendan barne hartu beharko dituzte.*

PROPOSAMENA: Ikastetxe bat lehen aukera bezala ipini duten ikasleek lehentasuna izan beharko lukete ikastetxe horretako plazak esleitzerakoan. Eta bete gabeko plazak bigarren aukera bezala ipini duten ikasleei eskainiko litzaieke (hori Eremuko Eskolatze-Batzordearen zeregina litzateke), beharrezkoa izanez gero haien artean baremazioa eginez.

- Beste irizpide batzuk: *Derrigorrezko Hezkuntza diskriminatzaile izan ez dadin.*

PROPOSAMENA: Atal honetako B eta C irizpidea (Bazkide kooperatibista izatea eta OOGk ematen duen puntua) kentzea.

B) AURRE-MATRIKULA EGITEKO PROZEDURAK:

Jarrarian agertuko diren proposamenak bi ardatzetan oinarritu nahi ditugu :

- 1- Ikastetxeak bere Hezkuntza Proiektua familiei egoki adierazteko eta instalakuntzak bisitatzeko aukerak ziurtatzea.
- 2- Administrazioak gaiarekin hartu behar duen kontrola eta ardurua eta gure ustez ematen diren arazoak ekiditeko prozedura berri bat asmatzea.

Honekin lotuta, hemendik proposatuko den mekanismoak, prozedura nahasira eramango gaitu, lehen aipatutako helburuak bate ahal izateko.

Administrazioan, badugu antzeko adibidea, diru laguntzak edo "bekak" delakoak hain zuzen. Ikastetxeak prozedura guztiaren lehenengo atala betetzen du (iragarri, dokumentazioa bildu , familiak aholkatu...) eta administrazioak berriz, bigarren atala erabakitzen du (diru laguntzen esleipenak, ordainketak...)

Prozedura:

1. Ikastetxeetan banatu eta jasoko dira aurre-matrikulatarako inprimakiak, horretarako markaturik dauden epeetan.

Garrantzitsua :

- Gurasoei 3 (hiru) aukerak jartzeko aholkatuko zaie, haiek nahi duten lehentasunaren arabera.
 - Zenbait ikastetxetan (eredu desberdinak dituztelako), gurasoek hala nahi izanez gero, eredu bakoitzak beteko du aukera bat, eta beste ereduak bigarren bat.
 - Inprimakia, aukeratu den lehenengo ikastetxean bakarrik jasoko da. Bi tokitan aurkeztuz gero, baremaziorako duen puntuaketa galduko du.
2. Epea bukatu bezain laster, ikastetxeek zerrendatu dituzten eskaerak, familiak erantsi dituzte dokumentazioekin batera, Lurralde bakoitzeko duen Ordezkaritzara helaraziko ditu prozeduraren bigarren faseari hasiera emateko.

Honetan, Ordezkaritza bakoitzak sortuko du MATRIKULAZIO BULEGOA eta egon diren eskaerak kontuan harturik plazen ESLEIPENAK burutuko ditu, erreklamazioetarako legalak diren epeak gordez.

Behin betiko esleipenak izan eta gero, zentro bakoitzari matrikulatuen zerrenda pasatuko dio, prozedurari amaiera emanez.

Eskolatze plazen eskaintza.

Ezaguna da, batzutan administrazioak ikasleak matrikulatzeko dituen zenbait behar eta horietako bat, azken garaian ETORKINEKIN lotuta dagoena izaten da, asko eta asko epetik kanpo matrikulatzen baitira. Horregatik egokia iruditu zaigu, zentro bakoitzeko plazen eskaintzarekin batera, fenomeno honi egoki erantzun ahal izateko , honako proposamena luzatzea gai honen inguruan :

Sare publikoan 22 plaza eskaini (1 gorde lehen aipatu den fenomenorako)

Itunpeko sarean 23 plaza eskaini (2 gorde . Orain arte dagoen desoreka konpontzeko)

C) ADMINISTRAZIOAREN INPLIKAZIOA SARE PUBLIKOAREKIN.

Sarritan irakurtzen eta entzuten dugu Administrazio ordezkoen lumatik eta ahotik Sare Publiko eta Sare Pribatuen arteko gaur egun ematen den oreka. Esan ere, esaten dute hori dela asken finean haien politikaren xedea.

Aipatzen duten oreka ez dela egia ziurtatzeko Administrazio berak ematen dituen datuak ikustea besterik ez dago. Baina gure kezka hitzaren esanahian kokatu nahi dugu. Administrazio Publikoak kontzertatuko ditu berak dituen errekurtsotik kanpo geratzen diren plazak. Horregatik, ahaleginak egingo ditu azpiegitura eta pertsonal baliabide propioekin urtero ematen den eskariari erantzuteko.

Beraz, aipatzen duten oreka delako hori ez litzateke egon behar, baizik eta publikoa den sistema bultzatuz, ahalik eta plaza gehien errekurtsotik propioekin bete. Itunpeko Ikastetxeek eskainiko zaie Sistema Publikoak betetzen ez dituen plazak.

Gure ustez, zalantzan jarri behar da "oreka" politika hori eta Hezkuntza Sistema Publikoa inolako zalantza eta lotsarik gabe bultzatu behar du Administrazioak. Honek eskatzen du esfortzu handi bat egitea plazak sortzeko, behar bezala pertsonal eta materialez hornitzeko, eskola publikoaren alde diskurtso positibo bat egitea, eta gero, ezinezko dena Ikastetxe Pribatuekin itundu.

Azken urte hauetan ikusten ari gara Ikastetxe publikoen arteko ematen den lehia ikasleak bereganatzeko. Bi gauza azpimarratu genitzake: batetik Ikastetxeek gurasoekin komunikatzeko duten beharra Zentroaren eta Hezkuntza Proiektuaren ezaugarriak jakinarazteko eta bestetik Ikastetxe berak ume horien daturik ez daukanez zonaldeko etxe guztietara zuzentzen dituen triptikoak eta horrek suposatzen duen gastu eskerga bere gain hartuz.

PROPOSAMENAK:

1. Ezer baztertu gabe, aurre-matrikula kanpainari begira proposatzen dugu Osakidetzak txerto edota hortzak zaintzeko kanpainak egiteko jarraitzen duen eskema martxan ipintzea. Hau da, matrikula epea hasi aurretik, Hezkuntza Departamenduak eskutitza bana bidaliko die 3(edo 2) urteko ume horiei eskutitza bana non adieraziko zaien:
 - Beharrezkoa den dokumentazioa.
 - Datak.
 - Eskaintza publikoa.
 - Ibilbideak.
 - Baremoak.

- Soberakinak egon ezker, birkokatzeko prozedura.
 - E.a.
2. Eskola Publikoaren aldeko kanpaina orokorra hedabideetan garaiz egitea.

Eranskin 2 - SAREANKidea den Iñaki Etxeberriak egindako lana:

ORIGEN, EVOLUCION Y RESULTADOS DE LOS MODELOS LINGÜÍSTICOS EN LAS REDES EDUCATIVAS DE LA C.A.P.V.

Índice

1. Introducción
2. Origen e implantación de los modelos lingüísticos en la CAPV
 - 2.1. Situación política de la época y secuencia legislativa
 - 2.2. Criterios utilizados para el reparto del alumnado por modelos
3. Evolución de la matriculación en los tres modelos lingüísticos en 2º ciclo de Ed. Infantil.
